

Auzopolisek 1. topaketa egin zuen

Otsailaren 14an, Auzopolis, Denboraren Bankuak, 1. topaketara bildu zituen bere bazkideak. Bertan, orain arte egindako ibilbidea azaldu zen: proiektua Ermuan, Mallabian eta Eibarren aurkeztu da eta hainbat herritako jendea Ermura etorri da ekimenari buruzko informazioa jasotzera. Bestalde, proiektuak udalak ematen duen Juan Torres saria jaso zuen eta zenbait komunikabidetan izan du oihartzuna. Gaur egun Ermuan Auzopolisek 35 bazkide ditu eta hainbat truke egiteko aukera eskaintzen du: ume eta nagusien zaintza, konponketa txikiak, euskara, ingelesa, gaztelera eta frantsesez solasaldiak, joste-lanak, kotxe zerbitzua, oporretan etxea zaintzea, informatika, odontologia, ile-apainketa edo sukaldaritza besteak beste.